

# Ekiñe Irizar Aranburu

**E** maila • 2 aipamena

Kaixo! Ni Ekiñe Irizar Aranburu naiz. 12 urte besterik ez dauzkat, eta Alkartasuna Lizeoa eskolako LH6.B gelako ikasle bat naiz.

Orain dela bi urte, Ttiklik Elkarguneko Gurasoei Gutuna idazlehiaketa irabazi nuen, joan den urtean, Beasaingo idazlehiaketan, E mailan hain zuzen ere, aipamena jaso nuen.

Horrek idazten jarraitzeko animoak eman dizkit, eta pozik nago.

Zaletasunez hitzegiterakoan, nik Gimnasia erritmikoa egiten dut, eskalatu ere bai, eta udan, berriz, piraguan ibiltzen naiz.

Bertso hau, haurrei eskaintzen diet, batez ere, haiei zuzendutako zerbait delako.

Doinua: Uso txuria errazu A

## LANBIDEAK

Noizbait burua etorri al zaizue  
Haunditan ze izan nahi zuen  
Mila Lanbide mundu honetan  
Zuretzat zein egokien?

Ni futbolari esan du Ainarak  
Unaiek dantzari trebe  
Hura marrazkilaria eta  
Bestea jaun eta jabe

Ni astronauta esan du Maitek  
Hark dendako asistente  
Besteak berriz ertzain izan nahi  
Ta hurrengo zer ote

Mila Lanbide dauden bezela  
Badaude gauza gehio orain  
Zuk gozatu umea izaten  
Iritsiko da, ez egon zain

